

Protektionismoa

Bigarren Mundu Gerraren ostean eraiki den merkataritza globalaren eta nazioarteko ekonomiaren joko arauak eraldatzeko agertokia zabaltu da. Trumpen *Amerika lehenik* goiburu hartuta AEBetako merkataritza politikaren errotiko bira estrategikoaren ateetan gaude. Diskurtsoan ez ezik, ekonomia eta merkataritza bide berriaren lehen ebidentziak indartsuak dira dagoeneko: azken 70 urteko multilateralismoa alboratu eta alde bakarreko estrategia indarrean ipini du Trumpek. AEBetako Gobernu berriak Pazifikoko arroko TPP merkataritza libreko eremua utziko du eta Mexikoko inportazio ondasunei %20ko muga-saria ezartzeko asmotan dabil. Neurri hori hartuko balitz, Ipar Amerikako merkataritza libreko eremua –NAFTA: AEB, Mexiko eta Kanada barnebiltzen duena– *de facto* eraitsia izango litzateke. Europarekin negoziatzen ari diren TTIP prozesua bertan behera geratu da.

AEBetako hegemonia ekonomikoaren ardatzetako bat globalizazioa eta merkataritza liberalizazioa izan da bere kanpo ekonomi politikari dagokionean. Merkataritza liberalizazioaren erritmoa eta mailaketa nahieran gidatu du potentzia ekonomiko nagusiak, lehenik GATT eta ondoren Munduko Merkataritza Erakundearen (MME) kudeaketa multilateral hobetsita. Nazioarteko merkataritzaren liberalizazioa –arantzelak eraistea neurri behinena duena– gauzatzeko prozedura hitzartua eta multilateral nagusi izan da azken zazpi hamarkadetan, disuasioa ere erabili den arren. Azken mende erdiko liberalizazio orokorra manufakturgaien merkataritzan eta finantzetan gauzatu da batik bat. Beste arlo batzuetan babesa eta araugintza mantendu da, nekazaritzan, zerbitzu gehienetan edo babes intelektualean esaterako. Horrela lortu dute AEBetako enpresa transnazional



Mikel Zurbano

EHU-KO IRAKASLEA

Merkataritzaren erregulazio globalaren arloan II. Mundu Gerraz geroztik eraikitako oinarriak lehertzeko bidean dira. Ikusteko dago AEBetako bulkada protektionistaren irispena. Indar alterglobalisten artean iritzi korrante batek –Susan Georgek, esaterako– ez du begi txarrez ikusten AEBetako merkataritza arloko alde berria, merkataritza libreko eremuen eraispena dakarren neurrian, baita TTIPena ere

ugarik bere hedapen globala bermatzea eta nazioarteko merkataritzak hazkuntza sendoa ezagutzea. Nazioarteko merkataritzaren liberalizazio selektiboaren eredu multilateral hau zalantzan jarri du AEBetako agintaritza berriak.

Nolanahi ere, aipatutako ereduaren krisia bistakoa zen azken hamarkadan izan duen bilakaera aztertuta. Izan ere, 2001ean zabaltu zen MMEaren Doharen negoziazio txanda ez aurrera ez atzera dago aspaldian. Horregatik eta Txina bezalako nazioarteko aktore emergente indartsuen agerpenagatik AEBek eskualdetako liberalizazio akordioak hobetsi dituzte mende honen hasierarekin bat. NAFTAren ondoren, Pazifikoko merkataritza libreko ituna –TPP– edo negoziazio prozesuan zegoen Atlantikoko –TTIP– eta beste batzuk sustatu dituzte Washingtondik. Hots, merkataritza politikaren joko esparrua zalantzakorra izan da azken hamarkadan.

Merkataritzaren erregulazio globalaren arloan II. Mundu Gerraz geroztik eraikitako oinarriak lehertzeko bidean dira. Ikusteko dago AEBetako bulkada protektionistaren irismena. Indar alterglobalisten artean iritzi korrante batek –Susan Georgek, esaterako– ez du begi txarrez ikusten AEBetako merkataritza arloko alde berria, merkataritza libreko eremuen eraispena dakarren neurrian, baita TTIPena ere. Trumpen ekonomia politikak epe laburreko onurak bilatzen dituen arren, hortik aurrerako eragin kaltegarriak bistakoa dira. Aldebakartasunak ez du irabazpenik ekartzen inorentzat ezta AEBentzat ere, izan ere hango produkzio sisteman errentagarritasunaren galera, produktibitatearen jaitsiera eta inflazio hazkorra nozituko dute ondorioz. Eta horrek protekzioaren logika indartu egingo du. Munduko gainerako herrialdeen erantzun erreaktiboa logika horretan ematen bada ondorioak aurreikusi ezinak dira. ■